

Miranda (Bianda)



MENDIZABAL IZAGIRRE familia

BIANDA Elbarrena auzoko baserria da. *Bianda* baserriko hiru familietako bat da Mendizabal Izagirik osatzen duena.

Familia honetakoen izengoitia *Tesanekoak* zen.

1962an ezkondu ziren Joxe Mendizabal eta Iñaxi Izagirre. Ezkondu zirenean, artean, aita-amak bizi ziren etxean. Ordizian, Zubizarreta jatetxean, bazkaldu eta handik Zaragozara bidaian.

Lau seme-alaba izan zituzten: Mari Joxe, Mariaxun, Iñaki eta Ima.

Bizimodua baserritik atera ohi zuten, latz lan eginda. Baserrian baziren bost-sei behi eta idi. Etxerako baratza ere bertan zuten. Eta Ordiziako ferian saltzen zituzten gaztainak eta arrautzak, gereziak, oiloak eta gazta. Aita 1970ean hasi zen Fabrika Handian lanean. Lanera oinez joaten ziren. Hogei ta bost minutu inguru behar izaten omen zituzten.

Informazio emailea: Iñaxi Izagirre



MENDIZABAL IZAGIRRE familia. 1962
Iñaxi eta Joxe.



MENDIZABAL IZAGIRRE familia.
Mari Joxe / Joxe (aita), MairiAxun, Iñaxi (ama) / Iñaki eta Ima.